



Urretxu udala



## IKASLE ETORKINENTZAKO EUSKARAZKO ERREFORTZU SAIOAK EMATEKO BI HEZITZAILEREN KONTRATAZIOA: LANALDI MURRIZTUA

### Kontratu mota

- 
- Obra edo zerbitzu jakin baterako kontratuak, aldi baterako (501) izango dira: batek astean 7 orduko lan-jardunaldia izango du, eta besteak astean 3,5 orduko lan-jardunaldia.
- 

### Derrigorrez bete beharrekoak:

- Unibertsitateko diplomaduna izatea
- EGA tituluaren (C 1) edo baliokideren baten jabe izatea
- Kontratazio unean %80ko lan-jarduna baino handiagoa ez izatea

### Merituak:

**Beharrezko irizpide guztiak betetzen dituzten hautagaien artean, honako puntuazioa kontuan hartuta egingo du aukeraketa-proposamena Zumarragako Udaleko organo arduradunak:**

- |  |          |
|--|----------|
| - Magisteritza ikasketak izatea, Euskal Filologian lizentziaduna izatea edota Hezkuntza berezian edo pedagogian espezializatua izatea:       | 10 puntu |
| - Begirale titulua euskaraz atera izatea:  | 10 puntu |
| - Begirale titulua gazteleraz atera izatea:  | 5 puntu  |
| - Haur eta gaztetxo etorkinentzako euskara errefortzu saioak ematen edo antzeko eginkizunetan izandako lan-esperientzia (puntu 1 hilabeteko) | 30 puntu |
| - Aisialdiko begirale, edo euskara irakasle edo hezitzaile gisa izandako esperientzia (0,5 puntu hilabeteko):                                | 10 puntu |

Berdinketarik balego, elkarrizketa bidez, hautsiko da berdinketa.

Gehieneko puntuazioa 60 PUNTUKOA izango da.

### Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskaera orria
- Curriculum eta bertan adierazten denaren egiaztagiriak

Oharra: tituluak ez dira konpulsatuak ekarri beharko. Hautagaien aukeraketa egindakoan, kontratua egin aurretik aurkeztu beharko dituzte bi hautagaiek dagozkien agiri originalak edo konpulsatuak.

### **Epea eta tokia:**

- Eskaera orriak 2020ko irailaren 30era arte (14:00ak bitartean) aurkez daitezke, Urretxuko udaletxeko erregistro nagusian.

### **Epaimahaia:**

Epaimahaia modu honetan osatuko da:

Lehendakaria: Sustapen soziokulturaleko arduraduna

Mahaikideak:

- Urretxuko Udaleko euskara teknikaria. Idazkari lanetan arituko da.
- Zumarragako Udaleko euskara teknikaria.

Epaimahaiak balorazio egin ondoren, puntu gehien lortu dutenak izendatzeko proposamen egingo dio organo eskudunari.

### **Lan poltsa:**

Baldintzak bete dituzten izengaiekin lan-poltsa osatuko da, lortutako puntuazioaren arabera, eta hurrengo 3 urteetan halako lanpostuak betetzeko erabiliko da, beti ere, betebeharreko baldintzak betetzen direla egiaztatuta.